



ANDREA BARTOLO
ASKAPENAKO KIDEA

Gerra inperialistari gerra

Mundu mailako erasoaldi inperialista betean gaude, mendebaldeko burgesiak gidatuta. Ofentsiba inperialistak hartu duen forma gerrarena da, aldaera guztiakin: gerra ekonomikoa, gerra kognitibo eta kulturala, *lawfare*; eta, noski, gerra militarra. Mendebaldeko inperialismoak eguneratu egin du Clausewitz-en kontzeptualizazioa, eta harago joan da: gerra ez da soilik "politika beste bitarteko batzuk erabilita"; politika, kultura, ekonomia eta algoritmoa ere, besteak beste, azken finean, gerra dira, beste bitarteko batzuk erabilita.

Egun bizi dugun gerra globalaren fronteak ugaritzen ari dira: Abya Yala, Ekialdeko Asia, Sahel, Magreb, Ekialdeko Europa, Mendebaldeko Asia... eta gero eta lotura handiagoa dute elkarrekiko. Azken hamarkadetan ofentsiba inperialista gauzatzeko modu nagusia intentsitate baxuko gerra izan bada ere, azken urteotan gero eta argiago ikusi da "gerra bigunaren" fronte guztiek bat egiteko joera erakutsi dutela, mundu mailako erabateko gerra militarrean. Horren adierazle dira Ekialdeko Europako eskalada kualitatiboa eta Mendebaldeko Asian ofentsibasionistaren hedapena. Edota NATOren azken goi-bileretan, Europako ordezkariak eta burgesia atlantistak sinatutako dokumentu estrategikoak, non, argi eta

garbi, apustua egin duten gerra-ekonomien, berrarmatzearen, gastu militarren igoeraren eta gatazka global baterako prestatzeko behararen alde.

Gerra-egoerak eta bizi dugun krisi kapitalistak izugarri azkartu dituzte kontraesan sistemikoak. Baina inperialismoaren indar suntsitzailearen hedapenarekin batera, deskolonizazio eta askapen nazionalen borroka ere areagotzen ari dira, bereziki Hego Globalean. Horrek zuzenean interpelatzen ditu zentro inperialistako eta Euskal Herriko herri mugimendu eta antolakundeak. Mendebaldeko burgesiaren biziraupen-gerraren aurrean, Euskal Herrian premiazko bi zeregin ditugu: batetik, inperialismoaren aurka borrokatzen duen herri langile guztienganako elkartasuna antolatzea, erresistentziarako eskubidea defendatuta; bestetik, gerrak sortzen dituen kontraesanak baliatzea klase eta herri langile gisa berrantolatzeko, Euskal Herriko klase eta nazio askapen borroka suspertuta. Derrotismo iraultzailearen kontsigna eta estrategia leninista eguneratu eta lurretatze beharra dugu, gerra inperialista klase-gerra bihurtzeko.

Mendebaldeko burgesiak gerra deklaratu dio munduari. Gerra egin diezaiozun, beraz, burgesiari eta haren gerra inperialistari! ●



ARANTZA GUTIERREZ
EHU-KO IRAKASLEA

Gurasotasun baimena

Zalantza asko izan ditut, meloia ireki ala ez. Ausartuko naiz, zer demon-tre! Aspaldian buruan dudan gogoeta jarri nahi dut mahai gainean: ez da justua erditu den emakumearen eta beste gurasoaren baimen-iraupena bera izatea. Hobeto esanda, baimen-denbora bera izanda ere, ez litzateke une berean zenbatzen hasi beharko. Nire ustez, umedun emakumearen baimen-epea hasi beharko litzateke bera guztiz osatuta egon eta gero, eta ez haurra jaio den unean. Erditze guztiak ez dira berdinak, eta, adibidez, zesarea behar izan duen emakumeak denbora gehiago beharko luke, edo erditu ondorengo depresioa duenak. Behar-

bada, mundu ideal batean, hasierako sei asteak bi gurasoek aldi berean hartzeko derrigortasunak dakar umeduna izan ez denaren inplikazio osoa eta erditu denaren errekuperazioa, baina gaurko gizarte patriarkalean, bereziki bikote heterosexualetan (inguruan dakusat) agerian dago hori ez dela horrela. Lagun batzuek argudiatzen dute baimenak parekatzeak balizko amatasunaren aitzakia desaktibatzea ekarri duela, baina horrek ez nau konbentzitzen. Beharbada arrisku-kirolen praktikak eragindako bajak nork hartzen dituen ikustea nahikoa litzateke hori neutralizatze; baten batek, susmoa dut, guraso-baimena probestuta. ●